



Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua

Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua

Zuzenketarako Koadernoak

1. zatia

Lehen Hezkuntzako 3. mailako ebaluazioa

2
0
1
4
/
1
5

HIZKUNTZA GAITASUNA

Izen-deiturak:

Ikastetxea:

Taldea:

Herria:

Data:



Probaren lehen zati hau egiteko 45 minutu dituzu.



Jarraibideak

Proba honetan testu bat irakurriko duzu eta irakurri duzunari buruzko galdera batzuei erantzungo diezu. Galderak mota batekoak baino gehiagokoak dira. Galderetako batzuek lau erantzun dituzte, aukeran, eta haietan zuzena dena aukeratu eta haren ondoan dagoen letra biribil batez inguratu behar duzu. Adibidez:

Ondoko 4 urtaroetatik, zein da hotzena?

- A Udaberria
- B Uda
- C Udazkena
- ☒ D Negua

Erantzuna aldatzea erabakitzen baduzu, ezabatu **X** batekin lehen erantzuna eta erantzun zuzena biribil batez ingura ezazu, ondoko adibide honetan egin den bezala:

Ondoko 4 urtaroetatik, zein da hotzena?

- A Udaberria
- ☒ B Uda
- C Udazkena
- ☒ D Negua

Beste galdera batzuetan, aldiz, eskatuko dizute (E) egia edo (G) gezurra erantzutea edo erantzuna idaztea puntuak dituen gunean:

Zeintzuk dira 4 urtaroak?

.....

Otsoko eta lapurra

Urbasa mendiaren oinetan Otsoko izeneko otso bat bizi zen. Huraxe zen, esaten dutenez, lehenengo artzain-otsoa. Joanes izeneko artzain batekin bizi zen honen txabolan. Txakurrek baino hobeto zaintzen zuen Otsokok Joanesen artaldea. Joanes oso pozik zegoen bere zaintzailearekin eta jaki goxoak ematen zizkion.

Behin, inguru hartako baserritar bat estu eta larri joan zitzaion, honela esanez:

- Kaixo, Joanes! Laguntza eske natorkizu.
- Zertan nahi duzu ba languntzea?
- Azeriak oiloak eramaten dizkit gauean oilategitik. Ez dakit zer egin. Eskopetarik ere ez daukat eta...
- Lasai, gizona, lasai! Ez daukazu eskopeta beharrik. Hori baino arma hobeia daukat nik hemen. Lau hankako arma. Ja, ja, ja!


Gau hartan Joanesek esan zion otsoari baserritar haren oilategian ezkutatzeko eta azeria joaten zenean, harrapatu eta bizi-bizirik txabolara eramateko. Gauean ezkutatu zen Otsoko baserritarren oilategi inguruan, sasi batzuen artean, eta... halako batean sekulako iskanbila oilategian! Laster zen han artzain-otsoa hortzak agerian.

Baserritarra korrika jaitsi zen oilategira azeria otsoaren hortzetatik zintzilik ikusteko asmoz. Baina, bai zera! Ikusten zuena sinetsi ezinik, galdetu zion baserritarrek lapurrari:

- Aizu, baina zer egiten duzu hemen? Nor zara zu?
- Kontuz, gizontxo, kontuz. Ni Mirumari sorgina naiz eta otso honek bakean uzten ez banau, zure oilar gorri hori lehoi bihurtuko dut eta biok jango zaituzte.
- Ez, mesedez, ez! Ez egin horrelakorik!

Baina ez pentsa Otsoko beldurtu zenik. Bai zera! Bere hortz txorrotzekin arropa zaharretatik atsoari ondo heldu eta Joanesen txabolara eraman zuen. Joanesek, bere txabola aurrean sorgin itxurako emakume hori ikustean, esan zuen:

- Baina zer da nire begiek ikusten dutena? Ez nuen horrelakorik espero! Zu Haizpitarteko Marizikin zara. Alferra zinela banekien, baina gauetan oiloak lapurtzen ibiltzen zinenik ez.
- Ni sorgina naiz, sorgina! Otso zahar honek bakean uzten ez banau, zure artaldeko ardi beltza lehoi bihurtuko dut eta zure ardi guztiak jango ditu! –erantzun zion lotsagabe atsoak bi eskuez aurpegi estaliz.



- Kendu esku horiek aurpegitik, ongi asko ezagutzen zaitut nik zu eta.
- Ez nuen uste inork ezagutuko ninduenik. Hau zoritxarra! Ai, ai, ai...

Eta orduantxe heldu zen zeharo izuturik baserritarra Joanesen txabolara.

- Joanes, kontuz emakume horrekin! Sorgina da, sorgina!
- Sorgina dela? Ez, arraioa! Begira iezaiozu ongi aurpegira. Ez al duzu ezagutzen ala?
- Hara! Haizpitarteko Marizikin ez al da hau?
- Horixe bera! Hementxe daukazu zure oilategitik oiloak harrapatzen zituen azeria. Bi hankako azeria, alajaina! Zer egin behar diogu orain?

Marizikin, erdi negarrez, honela mintzatu zitzaion baserritarrari:

- Nik sei oilo lapurtu ditut zure oilategitik. Sei oiloak eta dozena bat arrautza ekarriko dizkizut, nahi baduzu.
- Ez! Oiloak zuretzat. Ekarri dozena bat arrautza otsoarentzat eta beste dozena bat Joanesentzat. Nik ez dut ezer behar. Eta nire oilategirik ez gehiago zapaldu. Horixe besterik ez dizut eskatzen.
- Eskerrik asko. Nik uste nuen baino askoz hobe zara.

Eta Marizikinek txintxo-txintxo bete zuen baserritarrak esan ziona.



Joxantonio Ormazabal (moldatua)

1. Non zegoen Joanesen txabola?

- A. Mirumari herrian
- B. Urbasa mendiaren tontorrean
- C. Urbasa mendiaren oinetan**
- D. Haizpitarteko harrien ondoan

2. Nola eskertzen zion Joanesek Otsokori bere lana?

- A. Eskerrik asko esaten zion.
- B. Janari goxoa ematen zion.**
- C. Ardien inguruan egoten uzten zion.
- D. Ez zion eskertzen.

3. Joanesek “Lau hankako arma” esaten du. Zer edo nor aipatzeko erabiltzen ditu hitz horiek?

- A. Eskopeta handia
- B. Otsoko**
- C. Ardi beltza
- D. Oilo-lapurra

4. Non ezkutatu zen Otsoko lapurra harrapatzeko?

- A. Baserritarraren oilategian
- B. Joanesen txabolan
- C. Sasi batzuen artean**
- D. Mirumari sorginaren etxean

5. Zergatik gelditu zen baserritarra ikusten zuena sinetsi ezinik?

- A. Lapurra azeria zela uste zuelako.**
- B. Otsoaren hortzetatik zintzilik azeria zegoelako.
- C. Otsoaren hortzetatik zintzilik oilar gorria zegoelako.
- D. Otsoaren hortzetatik zintzilik lehoi bat zegoelako.

6. Zertaz mozorrotu zen Marizikin oiloak lapurtzeko?

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	• <i>Mirumari sorginaz</i> • <i>Sorginaz</i>

7. Haizpitarteko Marizikin Joanesen aurrean zegoela, zergatik jartzen zituen eskuak aurpegian?


.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	• <i>Joanes ez konturatzeko benetan nor zen.</i> • <i>Baserritarra ez konturatzeko Haizpitarteko Marizikin zela.</i> • <i>Baserritarrak ez ezagutzeko.</i> • <i>Joanesez ezagutzen zuelako.</i> • <i>Ez asmatzeko nor zen..</i> • <i>Baserritarrak ez ezagutzeko eta sorgina zela pentsatzea nahi zuelako.</i> • ...

8. Lotu lerro batez pertsonaia bakoitza esaten duenarekin:



Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Hiru loturak ongi

9. Ordena itzazu pasarte hauek istorioaren arabera (1etik 4ra zenbatuz).

- 3** Otsokok arropa zaharretik emakumeari heldu eta Joanesen txabolara eraman zuen.
- 1** Baserritarra Joanesengana laguntza eske joan zen, azeriak oiloak lapurtzen zizkiola uste zuelako.
- 4** Joanes konturatu zen benetan nor zen lapurra.
- 2** Otsoko oilategiaren inguruan ezkutatu zen eta halako batean iskanbila ikaragarria entzun zuen.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	3 - 1 - 4 - 2

10. Joanesek baserritarrari zera esan zion: **“Hementxe daukazu zure oiloak lapurtzen dituen azeria, bi hankako azeria, alajaina”**. Zer esan nahi du lapurra **“bi hankako azeria”** zela?

- A. Azeriak bi hanka zituela.
- B. Azeria handia zela.
- C. Azeriak sorginaren antza zuela.
- D. Azeria izan beharrean pertsona zela.**

11. Zenbat arrautza ekarri behar izan zituen azkenean Marizikinek Joanesentzat eta otsoarentzat?

- A. 10
- B. 20
- C. 24**
- D. Ez du esaten.

12. Zure ustez, baserritarra gogorra izan al zen Marizikini jarri zion zigorrarekin? Zergatik?

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Ezezko erantzuna, adibidez: • Ez, oiloak Marizikinentzat izan zirelako. • Ez, berarentzat ez zuelako ezer eskatu. • Ez, bakarrik arrautzak eskatu zizkiolako Joanesentzat eta otsoarentzat. • Ez, "nik ez dut ezer behar" esan ziolako. • Ez, ez zizkiolako oiloak eskatu, bakarrik bi dozena arrautza. • Ez, zigor handiagoa jarri ahal ziolako. • ...

13. Zergatik idazten dira Otsoko eta Joanes izenen lehen hizkiak letra larriz (maiuskulaz)?

- A. Beti puntu ondoren agertzen direlako.
- B. Idazleak hala nahi zuelako.
- C. Izen bereziak direlako.**
- D. Ipuin bat dela adierazteko.



HEMEN BUKATZEN DA LEHENENGO ZATIA

**Ez pasa hurrengo orrialdera
irakasleak esan arte.**



Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua

Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua

Zuzenketarako Koadernoak **2. zatia**

Lehen Hezkuntzako 3. mailako ebaluazioa

2
0
1
4
/
1
5

HIZKUNTZA GAITASUNA



Probaren bigarren zati hau egiteko 45 minutu dituzu.



BEHIN JOAN NINTZEN

Behin joan nintzen azokara,
erosi nuen txakur bat;
txakurrak txau txau txau
nik txitxi berari:
ekarri nuen etxera.

Behin joan nintzen azokara,
erosi nuen txistu bat;
txistuak fli fli fli
txakurrak txau txau txau:
eraman nion amari.

Behin joan nintzen azokara,
erosi nuen txori bat;
txoriak txio txio,
nik berriz negar lodi:
ihes egin zuen basora.

14. Aipatu azokan erositako guztia:

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Txakurra, txistua eta txoria.

15. Zer dira “txau txau txau”, “fli fli fli” eta “txio txio”?

- A. Idazleari gustatzen zaizkion soinuak.
- B. Erositako animalia eta objektu horiek egiten dituzten soinuak.
- C. Negar egin nuela adierazteko soinuak.
- D. Bertsoetan beti jartzen diren hitzak.

16. Zergatik egin nuen negar?

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	• Txoriak basora ihes egin zuelako. • Txoriak alde egin zuelako. • Txoria joan zelako. • Txoria eskapatu zitzaiolako • ...

17. Non aurki dezakegu honelako testu bat?

- A. Abestien bilduma batean
- B. Errezeten liburu batean
- C. Ipuinen liburu batean
- D. Hiztegi batean

Karraspio

Karraspio ere bazen norbait. Baserri baten inguruan zebilen erbi baten atzetik eta “danba! danba!” bi tiro bota zituen –eta benetan bota zituen honek, bi tiroko eskopeta baitzuen–.

Baserriko atean etxeko nagusia zegoen. Tiroak entzun eta segundu bat pasa baino lehen hantxe ikusi zuen erbi handi bat arin-arin ihesi, osasun onez.



Pixka bat geroxeago Karraspio ere agertu zen.

- Zuk bota al dituzu tiroak? –galdegin zion baserritarrak.
- Bai –erantzun zuen Karraspiok–, erbi bati bota dizkiot eta ia-ia harrapatu dut. Bigarren tiroak belarri bat kendu dio.
- Bai? Belarri bat kendu al diozu? –farrez baserritarra–. Ondo egin duzu, bai horixe! Zertarako behar zituen, bada, hiru belarri?

Pello Zabaleta (moldatua)

18. Zein hitz erabili du idazleak tiroaren soinua adierazteko?

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Danba

19. Non zegoen baserritarra?

- A. Soroan
- B. Baserriaren inguruan
- C. Bordan
- D. Baserriko atean**

20. Erbiak hiru belarri al zituen?

- A. Ez, erbiak bi belarri zituen.**
- B. Bai, erbiak hiru belarri zituen hasieran.
- C. Ez, Karraspiok zituen hiru belarri.
- D. Bai, animalia askok hiru belarri dituzte.



Koko flana

Osagaiak (zortzi lagunentzat):

- 6 arrautza
- Litro erdi esne
- 200 g azukre
- 200 g esne kondentsatuta (azukre gabekoa)
- 100 g koko birrindua edo xehatua
- Karamelu urtua



Etiketak

arraina arroza

barazkiak edariak entsalada

gabonak karakolak lapikokoa

mariskoa **okela** onddoak

pasta **postrea**

tortila txerriak txokolatea zopa

Bilatu

Ekin bilaketari!

Egiteko era:



Karamelua molde baten igurtziko dugu.



Osagai guztiak ondo irabiatu eta nahasketa moldera botako dugu.



Flana ordu erdi inguruan izango dugu labean, Maria bainuan (aldez aurretik labea 180 gradutan berotuko dugu 15 minutuz).



Orratz luze bat sartuko dugu, flana eginda dagoen jakiteko; eta beharrezkoa bada, pixka bat gehiago izango dugu labean.



Hoztu ondoren, moldetik atera eta izozki-bola pare batekin zerbitzatuko dugu.

21. Non erosiko zenituzke koko flana egiteko behar dituzun osagai guztiak?

- A. Barazki-dendan
- B. Janari-dendan**
- C. Fruta-dendan
- D. Goxoki-dendan

22. Ordena itzazu ondoko ekintzak flana egiteko (1etik 4ra zenbatuz):

- 4** Flana egina dagoen jakiteko orratz bat sartuko dugu.
- 1** Behar ditugun osagaiak erosiko ditugu.
- 3** Labean sartuko dugu.
- 2** Osagai guztiak ongi nahasi eta ontzira botako ditugu.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	4 - 1 - 3 - 2

23. Errezeta zortzi lagunentzat da. Lau lagunendako flana prestatu beharko bazenu, zer egingen zenuke?

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Osagaietatik kantitate gutxiago beharko dela adierazten du, baina zehaztu gabe: • <i>Osagaietatik kantitate gutxiago jarri.</i> • <i>Osagaietatik pixka bat gutxiago bota.</i> • <i>Denetik gutxiago jarri.</i> • ...
2	Kantitatea zehatz-mehatz adierazten du: • <i>Aipatzen diren kantitateen erdia bota.</i> • <i>Gauza guztien erdia jarri.</i> • <i>3 arrautza, litro laurden esne, 100g azukre, 100g esne kondentsatuta eta 50g koko bota</i> • <i>Errezetaren kantitateak zati 2</i> • <i>Osagai bakoitzetik erdia jarri</i> • ...

24. Zer esan nahi du koko birrindua edo xehatuak?

A. Koko osoa

B. Koko txikitua

C. Koko erdia

D. Labean beroturiko kokoa



Tximeleten sailkapena

Tximeleten sailkapena egitean bi multzo handi bereiz ditzakegu: eguneko tximeletak, eta gauekoak (edo sitsak).

Eguneko tximeletak	Sitsak
Egun argiz egiten dute hegan.	Orokorrean, gauez edo ilunabarrean egiten dute hegan.
Gorputz liraina eta buru txikia dute.	Gorputz lodia eta iletsua dute espezie askok.
Hegoak bildu egiten dituzte geldirik daudenean.	Atsedenean, hegoak teilatu modura jasotzen dituzte.
Kolore deigarriak dituzte espezie gehienek.	Kolore apalak dituzte espezie gehientsuenek.

25. Sitsak, tximeletak al dira?

- A. Bai, gaueko tximeletak dira.
- B. Bai, eguneko tximeletak dira.
- C. Ez, sitsak EZ dira tximeletak.
- D. Ez, sitsak beste multzo batean sartzen dira.

26. Eguneko tximeletek eta gauekoek zenbait berdintasun eta ezberdintasun dituzte. Aipa itzazu berdintasun bat ta bi ezberdintasun:

Berdintasuna

1)

.....

Berdintasunak:

- Denak tximeletak dira
- Hegan egiten dute.
- Hegoak dituzte.
- Txikiak dira.
- Antenak dituzte.
- ...

Ezberdintasunak

1)

....

2)

....

Ezberdintasunak:

- Eguneko tximeletek egunez egiten dute hegan; sitsek, gauez edo ilunabarrean.
- Eguneko tximeletek gorputz liraina dute; sitsek, gorputz lodia. Eguneko tximeletak finak dira; besteak, kodiak
- Eguneko tximeletek hegoak bildu egiten dituzte geldirik daudenean; sitsek, teilatu modura jasotzen dituzte. Modu ezberdinean biltzen dituzte hegoak.
- Eguneko tximeletek kolore deigarriak dituzte; sitsek, kolore apalak. Tximeletak sitsak baino politagoak dira.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Ez du baleko berdintasunik aipatzen, ezta ezberdintasunik ere.
1	Kasu hauetan: a) Berdintasuna ematen du. b) Ezberdintasun bat ematen du.
2	Kasu hauetan: a) Berdintasuna eta ezberdintasun bat ematen ditu. b) Bi ezberdintasun ematen ditu.
3	Erantzun osoa ematen du, berdintasuna eta bi ezberdintasun aipatuz.

27. Adieraz ezazu irudi bakoitzaren ondoan eguneko tximeleta ala sitsa den:



☐ Eguneko tximeleta

☒ Sitsa

☒ Eguneko tximeleta

☐ Sitsa

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	1. irudia sitsa da, 2.a eguneko tximeleta.

28. Zure ustez, zein aurkitu dezakegu errazago, eguneko tximeleta edo gauekoa? Arrazoituz zure erantzuna.

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak 28	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Egunekoa. Adibidez: • Egunekoa, kolore deigarriak dituelako. • Egunekoa, egun argiz egiten duelako hegan. • Egunekoa, kalean egunez gauez baino gehiago egoten garelako. • Egunekoak, argi gehiago dagoelako. • ...